

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Antzoki Sareak, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin, Nafarroako Arte Eszenikoen lehen Zirkuitua abiatuko du

Batzorde artistiko batek proposamen eszenikoen katalogo bat sortuko du, maiatza eta azaroa bitartean programatuko direnak

Astelehena, 2018.eko urtarrilak 29

Antzoki Sareak Nafarroako Arte Eszenikoen Zirkuitua jarriko du martxan, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren laguntzarekin. Ekimena Antzerkia Sustatzeko Planaren baitan kokatzen da, Kultura Zuzendaritza Nagusiak 2017an abiatua, Nafarroan antzerkian eta dantzak bizi duten ezegonkortasun-egoera arian-arian hobetzeko.

Kulturako zuzendari nagusia den Fernando Pérezek eta Nafarroako Antzoki Sareko lehendakari den Zutoia Toralek gaur goizean aurkeztu dute Arte Eszenikoen Zirkuitua, sustatzaileen artean diziplina desberdinetako artista nafarrek sortutako lan eta produktu kulturalak zabaltzeko. Nafarroako dantza- eta antzerki-konpainia profesionalen programazioa Nafarroako Antzoki Sarea Elkarteko udal-espazio eszenikoetan erraztea da asmoa, zeinak kalitate nabarmeneko dantza- eta antzerki-espektakuluak hartuko dituzten, katalogo batean jasoak.

Zirkuitua martxan jartzearekin gonbita egin nahi zaie espazio eszenikoei modu koordinatuan eta sarean lan egiteko, komunitatean arte eszenikoak zabaltzeko esfortzu eta ezagutzen bateratzea aprobetxatzeko moduan. Hala, espazio eszeniko egokiak dauzkaten herrien gerturatzea babesten da, publikoen sorrera, prestakuntza eta fidelizazioa sustatzearekin batera.

Nafarroako Arte Eszenikoen Zirkuituak 125.000 eurotako aurrekontua dauka eskura, Nafarroako Antzoki Sarea Elkartera zuzendutako 215.000 euroen baitan, Kultura Zuzendaritza Nagusiak emana. Gainera, bertan parte hartzen duten sareko espazio eszenikoen ekarpena ere izango du ekimenak.

Honakoak dira zirkuituaren egitekoak: konpainia eta espazio eszenikoei partaidetza-baldintzak ezagutzera ematea; lanak koordinatzea konpainien katalogoa osatzeko; espazio eszenikoen proposamenak jasotzea; espazio eszenikoek egingo dituzten kontratazioak gainbegiratzea; eta, gainera, zirkuitua bera zabaltzea eta hedatzea, espazio eszenikoetako programetan dantza- eta antzerki-konpainia profesionalen presentzia ezartzeko baliabide gisa.

Zirkuituaren egutegia

Otsailaren 15ean Arte Eszenikoen Zirkuituaren bulegoa jarriko da martxan, aurkeztutako proposamenak baloratu dituen batzorde artistikoa

eratuko da eta antzerki- eta dantza-konpainia profesionaleri zirkuituaren berri emango zaie. Martxoaren 1 ean bukatuko da konpainien proposamenak aurkezteko epea. Halaber, martxoaren 15ean, itxi egingo da katalogoa, zirkuituko webgunean argitaratuko da eta horren berri emango zaie Sareko espazio eszeniko elkartuei.

Gero, apirilaren 15ean aurkeztuko da programa, eta maiatzaren 1a eta azaroaren 1a artean garatuko da zirkuituaren baitako ikuskizunen programazioa.

Lehen edizio honetatik aurrera, konpainia, produktore eta banatzaileek urteko edozein momentutan aurkeztu ahal izango dituzte beren proposamenak. Batzorde artistikoak ebaluatuko ditu proposamenak eta urria hasieran erabakiko du zeintzuk sartuko diren zirkuitura.

Hurrengo urterako behin betiko katalogoa azaroa baino lehen zabalduko da eta aurkezpen-ekitaldi bat izango du 948 Merkatua/Nafarroako Arteen Merkatuaren baitan. Gainera, beste antzerki-azoka eta -erakustaldi garrantzitsu batzuetan ere izango da (DFeria-Donosti, Feria Internacional de Teatro y Danza de Huesca eta Fira Tárrega, esaterako).

Azaroa amaieran aurkeztuko dute udaletxe eta espazioek beren kontratazio-proposamena eta urtarrila erdialdean argitaratuko da programa. Azkenik, otsaila eta azaroaren 1a artean, ekoizpenen errepresentazioen egutegia gauzatuko da.

Prestakuntza, topaketa-foroak eta kanpo-proiektzioa

Nafarroako Arte Eszenikoen Zirkuitua topaketa-espazioak eraikitze dago pentsatua, elkarrizketa komuna eta jardun bateratua sortuko dituztenak, programaziorako eta sorkuntzarako beste berriak eta proiektuak artean.

Ildo horretan, eta zirkuitua sendotuz joan ahala, lan-trukaketak eta -esperientziak planteatzea aurreikusten da, bai programazioaren esparruan eta bai sorkuntzaren esparruan ere eta, modu bateratuan, estatu mailako eta nazioarteko antzeko agenteekin elkarlana sendotzea.

Estatu mailan funtsezkoa izango da azoketan parte hartu eta Redescena bezalako zirkuituekin topo egitea. Nazioartean, bestalde, Europa Creativa bezalako erakunde eta programekin kontaktuan jartzea da planteatzen dena (Europar Batasuneko programa, lehenetsun gisa kultura- eta sorkuntza-sektoreen gaitasuna indartzea duena, mugaz gaindi eta nazioartean ekin ahal izateko, nazioarteko zirkulazioa eta mugikortasuna sustatzearekin batera), eta baita Res Artis (arte-egonaldietako programen mundu mailako sarea) edo Iberescena bezalako programekin ere (arte eszeniko iberoamerikarren jardura sustatu, elkartrukatu eta integratzeko programa).

Formación, foros de encuentro y proyección exterior

El Circuito de Artes Escénicas de Navarra está pensado para construir espacios de encuentro que permitan el diálogo común y la generación conjunta de actuaciones; así como otros específicos y propios para la programación y para la creación.

En esta línea, está previsto que, conforme el circuito se asiente, se planteen los intercambios y experiencias de trabajo, tanto en el ámbito de la programación como en el de la creación y, también de manera conjunta con agentes similares de los ámbitos estatal e internacional.

En el ámbito estatal será fundamental la participación en ferias y el encuentro con otros circuitos como Redescena, y en el ámbito internacional se plantea establecer contacto con entidades y programas como Europa Creativa (programa de la Unión Europea que tiene como prioridades el refuerzo de la capacidad de los sectores culturales y creativos para operar a nivel transfronterizo e internacional, y el impulso de la circulación y la movilidad transnacionales), además de Res Artis (Red mundial de programas de residencia artística) o Iberescena (programa de fomento, intercambio e integración de la actividad de las artes escénicas iberoamericanas).